

PRESTAKUNTZA ARLOA:	Berdintasuna
MODALITATEA:	On-line
HIZKUNTZA:	Gaztelania

## IGUALDAD DE GÉNERO: Conceptos básicos

KODEA

2016-26-0-8

### INFORMAZIO OROKORRA

**IRAUPENA** 15 ordu **IKASTAROAN SARTZEKO** <http://ivapprestakuntza.eus>

**HARTZAILEAK** Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetako langileak.

**ESKAKIZUNAK** - Posta elektronikoaren kontu bakar bat ikasleko.  
-Administrazio Orokorreko langileentzat: posta elektronikoaren kontu bat, posta sare korporatibokoak ez diren posta-zerbitzarietara bidaltzeko eta zerbitzari horietatik jasotzeko aukerarekin. Ez dira baliozkoak izango mezuak soilik sare korporatiboaren barruan bidali eta jaso ditzaketenak.

**ESKAKIZUN TEKNIKOAK** SOFTWAREA:  

- Windows XP edo berriagoa
- Nabigatzaileak: Mozilla Firefox eta Chrome eguneratuak (gomendatuak)  
Internet Explorer 9 edo berriagoa
- Pantailaren bereizmena: 1024 x 768 (gomendatua)
- Adobe Flash Player 14 edo berriagoa
- Acrobat reader 10 edo berriagoa (gomendatua)
- Interneterako konexioa eta Youtube zerbitzuko atzipena zabalik

HARDWAREA:  

- PC Pentium VI edo berriagoa
- Soinu-txartela
- Entzungailuak edo bozgorailu independenteak

**TUTORETZAK** Tutorearen egitekoak:  

- Ikasleei plataforman ongi-etorria emateko mezu bat bidaltzea.
- Kontsultei erantzutea:
  - ikastaroaren edukiari buruzkoak, plataformako foroaren bidez
  - 24 orduko epean erantzutea
- Ikaskuntzaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.

HILA	HASIERA	AMAIERA	ADMINISTRAZIO OROKORRA		BESTE ADMINISTRAZIO BATZUK	BAJEN JAKINARAZPENAK (ez dakar matrikula- kosturik)
			ESKATZEKO AZKEN EGUNA	ONIRITZIA	ESKATZEKO AZKEN EGUNA	
MARTXOA	Martxoak 1	Martxoak 18	Otsailak 5	Otsailak 8tik 12ra	Otsailak 12	Otsailaren 29a arte

### ZER LORTU NAHI DA?

**HELBURU OROKORRAK**

- Administrazioak emakumeen eta gizonen aukera- eta tratu-berdintasunaren arloan eredugarri izateko duen zeregina sendotzea, administrazioetako langileak sentsibilizatuz eta haiei prestakuntza emanez.
- Ikasleek jendea –banaka zein taldean– artatzeko modua hobetzeko neurriak hartzea, bai barrurako, bai kanporako.
- Ikasleei tresnak eta baliabideak ematea lan-eremuan berdintasuna susta dezaten, genero-ikuspegia kontuan hartuta komunikazioa bultzatuz.
- Erabakiak hartzen diren egituretan emakumezko gehiago izatea, eta gogoeta egitea emakumeek dituzten oztopoei buruz eta zuzendaritzako postuetara iristeko aukerak mugatzen dituzten egiturei buruz.
- Administrazioan parekotasuna sustatzea, administrazioaren eremu guztietan.

<b>PRESTAKUNTZA ARLOA:</b>	<b>Berdintasuna</b>
<b>MODALITATEA:</b>	<b>On-line</b>
<b>HIZKUNTZA:</b>	<b>Gaztelania</b>

## IGUALDAD DE GÉNERO: Conceptos básicos

- Dauden genero-politikak testuinguruan kokatzea.
- Eragile izatea, emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunean aurrera egiten laguntzeko.

### HELBURU ESPEZIFIKOAK

- Emakumeen eta gizonen artean egun dagoen desberdintasunari buruz eta politika publiko espezifikoak ezartzeko beharrari buruz hausnartzeko bide ematen diguten kontzeptuetara hurbiltzea.
- Diskriminazioaren egituren jatorria testuinguruan kokatzea.
- Oinarrizko kontzeptuak adostea.
- Espazioetan emakumeek eta gizonen duten egoera desberdinaren berri izatea, eta batzuek eta besteek dituzten rola identifikatzea.
- Berdintasunaren aldeko politiken, ekintza positiboen eta genero-mainstreamingaren jatorria testuinguruan kokatzea.

### GAITASUNAK

Prestakuntza-ekintza amaitzean, ikaslea gauza izango da:

- Gizartean emakumei eta gizonen esleitzen zaizkien rol eta zeregin desberdinei buruz hausnartzeko, eta jarrera kritiko bat garatzeko.
- Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun-egoerak identifikatzeko, eta lan-eremuan egoera horiek murrizteko ekintzak proposatzeko
- Erakundeek benetako berdintasuna lortzeko hasitako ekintzak definitzeko, eta gomendioak txertatzeko lan-eremuan.

## PROGRAMA ETA EBALUAZIOA

### METODOLOGIA

Autoprestakuntzako ekintza honek bi ardatz nagusi ditu: plataforma birtuala eta tutoretzak. Ikaskuntzaren oinarrian, sistema dinamikoa bat dago, ikasleek aktiboki parte har dezaten; tutoreak gidatzen du ikaslea, eta ikasleak, berriz, banakako lana eginez eta elkarlanean arituz ikasten du. Ikastaroak 5 gai ditu, eta jarduera desberdinak. Ikasleen ikastaldia osatzeko bideak: ikastaroko dokumentazioa eta irakurtzeko esteketarako sarbidea; foroetan parte hartzea; ariketa praktikoak eta galdetegiak egitea, eta tutorearekin beti harremanetan egotea, plataformaren bidez.

### PROGRAMA

1. SEXUA-GENEROA SISTEMA GENEROAREN SOZIALIZAZIOA
  - 1.1. Genero-ikuspegia: emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko tresna bat.
  - 1.2. Genero-politikak.
2. OINARRIZKO KONTZEPTUAK
  - 2.1. Berdintasuna/ Desberdintasuna
  - 2.2. Zuzeneko diskriminazioa / zeharkako diskriminazioa.
  - 2.3. Lana sexuaren arabera bereiztea.
  - 2.4. Bereizketa horizontala eta bertikala.
  - 2.5. Emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuna.
  - 2.6. Ekintza positiboa.
  - 2.7. Genero-zeharkakotasuna.
  - 2.8. Ahalduntzea.
3. DISKRIMINAZIOAREN KONTRAKO POLITIKEN JATORRIA
  - 3.1. Diskriminazioaren kontrako politiken jatorria.
  - 3.2. Emakumeen Giza Eskubideak eta berdintasuna, nazioartean.
  - 3.3. Emakumea diskriminatzeke era guztiak deuseztatzeari buruzko Konbentzioa (CEDAW)
  - 3.4. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiken kronograma.
4. EMAKUMEEN NAZIOARTEKO BILTZARRAK
  - 4.1. Emakumei buruzko munduko biltzarrak.
  - 4.2. Hamarkada bateko lanaren ondorioak.
  - 4.3. CSW batzordearen 49. saioan hartutako ebazpenak.
  - 4.4. Beijing konferentzia + 15 ONU, 2010. urtea
  - 4.5. Aurrerabide batzuk.
  - 4.6. Oraindik ere badauden hutsuneak eta arazoak.

PRESTAKUNTZA ARLOA:	Berdintasuna
MODALITATEA:	On-line
HIZKUNTZA:	Gaztelania

## IGUALDAD DE GÉNERO: Conceptos básicos

4.7. Eztatidarako lehentasunezko gaiak  
5. BERDINTASUN PLANAK EUROPAN ETA EAEn. "BERDINTASUNERAKO LEGEEI"  
BURUZKO OHAR BATZUK

5.1. Berdintasunerako estrategiak: legeak, egiturak eta berdintasun-planak. Europatik  
EAera.

### EBALUAZIOA

Ebaluazioaren **helburua**: ikastaroaren helburu orokorrak eta espezifikoak bete direla  
bermatzea.

Ikastaroaren ebaluazioan, **9 jarduera** daude. Jarduera batzuk on-line erantzun  
beharreko galdetegiak dira, eta beste batzuk, pc-an egin beharko dira, gero plataforma  
birtuanean jartzeko; tutoreak zuzenduko ditu, plataformatik, eta lanaren feedback bat  
itzuliko dio ikasleari. Jarduerak egiteko epeak orientagarriak dira; tutoreak finkatuko ditu,  
eta plataformako egutegian ikusi ahalko dira.

### IKASTAROAREN BALORAZIOA

Ikasleen gogobetetze-inkesta eta Irakaslearen balorazio inkesta.

Inkesta egitera sartzeko esteka bidaliko dugu, mezu elektronikoaren bidez.

### ZIURTAGIRIA

**Aprobetxamenduaren ziurtagiria** lortzeko **betekizunak**:

- Jarduera guztiak gaituta izatea (galdetegi guztietan, gutxienez, %50 zuzen  
erantzutea)

### PREZIOA

**107€**

AGINDUA, 2014ko abenduaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren;  
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio  
publikoen zenbatekoa ezartzen duena.(Abenduaren 30eko EHAA, 248. zk.)

### OHARRAK

Laguntza behar izanez gero:

- Deitu ELZko telefono zenbakira **94 4735339**
- Astelehenetik ostiralera 08:00etatik 17:00etara